

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

20

ESTILOA (III)







ESTILO ARAZOAK

Zenbait idazkitan, ohikoa da esaldi luze bakarreko lerroalde potoloak aurkitzea. Eta are normalagoa, zoritxarrez, testu horiek behin baino gehiagotan irakurri beharra, mezua ulertu ahal izateko. Estilo-liburu guztietan gomendatzen da esaldi laburrak erabiltzea.

Adibidez



Zure idatzia jaso ondoren, non azaltzen diguzun Bidezaingo Lurralde Zerbitzuak emandako isun-jakinazpenak ez zuela "Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea"-ren 8.2. artikuluan ezarritakoa betetzen, jakinarazpenean Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzen ez zirelako, jakinarazten dizugu Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritza honen nahia lege horretan ezartzen dena betetzea denez, zuk jaso duzun jakinarazpenak ez daukala beste iturririk izapidaketan suertatu den ustekabeko akatsa baino

Zure idatziaren bidez adierazten diguzunez, Bidezaingo Lurralde Zerbitzuak emandako isun-jakinazpenak ez du legeria betetzen. Antza denez, eta legeak adierazten duenaren aurka, jakinarazpenean ez ziren erabili Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizial biak (1). Gertatuak gertatu, jakinarazi nahi dizugu Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritza honen nahia legea betetzea dela, baina, hala ere, tramitazioan ustekabe sortu zen akats batengatik bidali genizun jakinarazpen hura.
(1).- Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea (8.2. artikulua)





ESTILO ARAZOAK

ATZERAKARGA

Atzerakarga da informazioaren zutabe nagusiak esaldiaren amaieran jartzea. Izan ere, uste zabaldua da euskaraz aditza esaldiaren azkenean kokatu behar dela. Esaldi laburretan ondo funtzionatzen du uste horrek, dirudienez, euskarak eskatu eta eskertu egiten duelako bide hori. Baina, uste horri itsu-mustuka jarraitzeak ulergarritasun-arazo franko ekar ditzake, batez ere esaldi luzeetan. Izan ere, aditzak eta subjektuak biltzen dute esaldiaren informazio nagusia, eta, horregatik, atzerakarga dagoenean, oztopo itzelak sortzen dizkiogu hartzaileari, atzeratu egiten baitugu informazio nagusiaren pertzepzioa.





ESTILO ARAZOAK

ATZERAKARGA

Testu argiago egiteko hainbat bide daude:

o Moztu esaldiak luzeegi direnean



Azterketariek administraziora sartzeko egiten diren hautaketa prozesuetan autonomi erkidegoko edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko aukera izango dute

Azterketariek aukera izango dute autonomi erkidegoko edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko, administraziora sartzeko hautaketa prozesuetan

o Jarri subjektua eta aditza ahalik eta hurbilen



Azterketariek administraziora sartzeko egiten diren hautaketa prozesuetan autonomi erkidegoko edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko aukera izango dute

Aztertzaileek aukera izango dute autonomi erkidegoko edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko, administraziora sartzeko hautaketa prozesuetan

o Aurreratu aditza galdegaia denean



XX. mende honetan, komunikabideen zabalkunderako teknologien garapenean izan ditugun aurrerapenak ikaragarriak izan direla ezin dugu ukatu

Ezin dugu ukatu ikaragarriak izan direla XX. mende honetan izan ditugun aurrerapenak, komunikabideen garapenean



ESTILO ARAZOAK

ATZERAKARGA

Testu argiago egiteko hainbat bide daude:

o Ahal denean, jarri galdegai faltsua aditzaren aurrean



Zure erakundetik bidali eta HAEEko erregistroan hil honetako 22an jasotako idazkia bidaltzen dizut

Honekin batera bidaltzen dizut zure erakundetik bidali eta HAEEko erregistroan hil honetako 22an jasotako idazkia

o Pasatu aurrera aditz deklaratiiboak



Eskatutako dokumentazioa jaso arte ez dela diru-laguntzarik emango esan digute

Esan digute ez dela diru-laguntzarik emango eskatutako dokumentazioa jaso arte.



ESTILO ARAZOAK

GERUNDIOA

Gaztelaniako gerundioa euskarara ekartzean, bide desberdinak hartzen ditugu. Batzuetan ZERTAN galderari erantzuten dioten esaldiak osatzen ditugu; beste batzuetan, ordea, NOLA galderari, edo bestela -(e)LA, -(e)LARIK atzizkiak erabiliz egiten ditugunak.

Sarri askotan, gehiegitan, erabilitako bide horiek ez dira egokienak. Estiloari begira, adibidez, esaldi luzeegiak, eta euskararen izaerarekin zerikusi gutxi daukatenak osatzen ditugu. Egokiak ez direnak ere, jatorriz erdaraz gaizki daudenak, maiz ikusten dira.

Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du deialdia egiten duen administrazioak arrazoibideak aurkezteko epea **zabalduz**; epe hori, gutxienez zazpi egun naturalekoa izango da.

Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du deialdia egiten duen administrazioak eta arrazoibideak aurkezteko epea **zabalduko du**; epe hori, gutxienez zazpi egun naturalekoa izango da.



Akordio honen eraginkortasuna hutsuneak zuzentzeko baldintzapean dago, aipatutako zehaztasunak sartu arte betearazterik izango **ez duelarik**.

Akordio honen eraginkortasuna hutsak zuzentzeko baldintzapean dago. Aipatutako zehaztasunak sartu arte ez da indarrean jarriko.